BERMEOKO UDALAREN BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN ETA BERUALAREN BARNE ETA KANPO KOMUNIKAZINOA GARATZEKO ZERBITZU KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK.

1. Artikulua: XEDEA

Kontratuaren xedea hau da: Bermeoko Udalaren, bere menpeko Erakunde Autonomoen eta BERUALAren barne eta kanpo komunikazinoa garatzea.

2. Artikulua: ZERBITZUAN ZERTAN DATZA

Ondorengo betebeharrak suposatuko dauz, Udalarekiko eta aipatutako entitate horreekiko:

1.- Komunikabideekaz harremana:

-Komunikabideak artatu eta behar daben informazinoa eskaini.
-Aldizkako prentsaurrekoak zein prentsaurreko bereziak antolatu eta kudeatu.
-Prentsa oharrak prestatu, idatzi eta komunikabideetara helarazi.
-Komunikabideekiko agenda antolatu.
-Elkarrizketak antolatu eta kudeatu.

2.- Erreminten kudeaketa:

-Web guneko albisteen atala kudeatu eta informazinoaz hornitu.
-Sare sozialak kudeatu eta informazinoaz hornitu.
-Hileroko "Bermeon zer?" aldizkariaren edukiak antolatu, koordinatu eta gainbegiratu argitaratu aurretik. Horretarako barne sail guztietako informazioaren koordinazioa bideratuko du eta dagozkion diseinu eta ekoizpenak egiteko hornitzaileekin bitartekaritza eta koordinazioaren ardura hartuko du.
-Informazino kanal guztietarako informazinoa prestatzea eta jarraipena egitea.
-Agerraldietako dokumetazinoa prestatu eta kudeatzea.
-Kudeatutako kanal guztien analisia.
-Komunikabideetan izandako inpaktuaren jarraipena.

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI
Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E30002A0E600X4G3A8J7I6O0
Sinadurea eta datea
MIREN KARMELE MUÑOA ARRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA TEKNIKARÍA - 08/08/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/08/2019 12:28:54
EXPEDIENTE :: 2019KON_IRE_0016
Datea: 19/07/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

3.- Udal informazinoaren kudeaketa:

-Erakundeen programa eta ekimen ezbardinen informazinoa batu eta komunikatzeko landu.

4.- Ekimenen jarraipena:

-Erakundeek antolatutako ekimenen eta udalerrian burutzen diran bestelako ekimen garrantzitsuenen jarraipena egitea, sare sozialetan jarraipen horren eta burutzapenaren argitalpena egitea horretarako beharrezkoak diren irudi eta bideo edukiak sortuz.

3. Artikulua: ZERBITZUA ZELAN GAUZATU

Ez da beharrezkoa izango lan guzti honeek udal bulegoetan bertan egitea eta esleipendunak lanaren gehiengoa bere egoitzan garatu beharko dau, beti be Udalak ezinbestekotzat emoten dauzan batzarretan parte hartzea bermatzen bada eta, kontutan eukita, batzar horreek gitxienez astean behin izango dirala.

Era berean, prentsaurreko eta agerraldietan euretan presente egotea behar-beharrezkoa izango da, eta baita be ekimen ezbardinen jarraipenerako, jai eta protokolo egunetan sostengua emoteko, eta gertakizun berezi edo ezustekoetan laguntzeko.

Lana enpresaren egoitzatik beratik egiten dan momentuetan, esleipenduna udalagaz komunikatuta egongo da bai telefonikoki bai eta telematikoki be, eta beharrezkoa dan zerbitzu eta sostengua emoteko gaitasuna eta prestasuna eduki beharko dau, gutxienez bulego ordutegi arruntean (astelehenetik barikura 08:00etatik 15:00etara).

Modu horretan zerbitzua era egokian emoten ez dala eritxiko balitz, Udalak askatasun osoa eukiko dau eguneroko ordu kopuru gitxiengo bat presentziala izan daiten agintzeko.

Bertoratze gastuak eta bestelako bidai eta dieta gastuak esleipen prezioaren barruan egongo dira, eta ezingo da esleipen preziotik kanpo ezelako kontzepturik fakturatu.

Esleipendunak zerbitzu egokia emoteko, gitxienez honako baliabide honeek eduki beharko dauz:

-Ordenagailua, interneten konexinoa eta harremanetarako helbide elektronikoa.

STEMMA PRODIERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E30002A0E600X4G3A8J7I6O0

Sinadurea eta datea

MIREN KARMELE MUÑOA ARRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA TEKNIKARÍA - 08/08/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/08/2019 12:28:54

EXPEDIENTE :: 2019KON_IRE_0016

Datea: 19/07/2019

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

-Telefono mugikorra.
-Argazki kamera eta grabagailua.
-Gidatzeko baimena eta ibilgailu propioa

Baliabide honeek bere gain eta kontura izango dira.

Zerbitzuari buruz emon beharreko aginduak, enpresako arduradunari edo kontratuaren jarraipenerako izendatutako ordezkariari emongo jakoz, eta ez langileari zuzenean. Enpresa esleipenduna izango da langilearen lana zuzendu eta kontrolatuko dauana.

Hori horrela, esleipendunak, arduradun edo ordezkariaren izena eta kontakturako bideak zehaztu beharko dauz, horretarako helbide elektronikoa barne.

Enpresa esleipendunak emon beharreko zerbitzua uneoro bermatzeko beharrezko diran langileak euki beharko dauz eta beharrezko neurriak hartuko dauz, hala nola, langileriaren gaixotasun hutsuneak, oporrak, baimenak, etab. antolatu eta beharrezko ordezkapenak egin.

Langileak esleipenduaren mendekoak izango dira eta haren mendekoak baino ez, Bermeoko Udalagaz enplegu harremanik ez beste inolako harremanik be euki barik, ez kontratua dirauen bitartean ez ondoren bez. Hori horrela, Bermeoko Udalak ez dau ezelako erantzukizunik eukiko esleipenduaren eta bere mendeko langileen artean sortutako arazoetan.

4. Artikulua: SORTUTAKO MATERIALEAREN JABETZA

Sortzen dan materialea (prentsa oharrak, ikus-entzunezko soporteak, agerraldiko materialea), Bermeoko Udalari buruz eta bere informazinoagaz elikatutakoa dan heinean, Bermeoko Udalaren jabetzakoa izango da eta ezingo da Udaletik kanpo beste ezertarako erabili, ez bada Udalak berak horretarako berariazko baimena emoten dauala.

5. Artikulua: HIZKUNTZA

Zerbitzua elebitan eman beharko da orokorrean eta, beharrezkoa danean, atzerriko hizkuntzetan.

6. Artikulua: KAUDIMEN TEKNIKOA

Enpresak bere kaudimen teknikoa hauen bitartez kreditatu beharko du:

a) Enpresaren plantillan dagozanen ikasketa-tituluak eta profesionalak: zerbitzua garatuko daben langileak, kazetaritzan lizentziadunak izango dira eta gidatzeko baimena eduki beharko dabe.

b) Hizkuntza eskakizunak: Zerbitzua garatuko daben langileek, lana euskeraz modu egokian gauzatzeko maila nahikoa eduki beharko dabela bermatzeko, EGA edo baliokidea daukeela egiaztatu beharko dabe.

   Bermeok daukan atzerriko bisitarien kopurua goraka doala ikusirik, komunikazio zerbitzua eskeintzen dauan enpresak zerbitzua atzerriko hizkuntzatan emoteko gaitasuna euki beharko dau. Horretarako, FIRST CERTIFICATE IN ENGLISH edo baliokidea dan ziurtagiria egiaztatu beharko da.

c) Bigarren atalean aitatutako betebeharrekaz lotura zuzenean, zerbitzu hau garatuko daben enpresak, Administrazinoan antzeko lanak burutzen bost urteko eskarmentua euki beharko dabe, kontutan eukita Administrazinoaren izaera, bere funtzionamendua eta sortzen dauan informazinoa berezia dala, enpresa pribatuekaz alderatuta, eta herritarrengan daukan inpaktu eta interesak be, kudeatze berezia eskatzen daualako.

   Esperientzia konplementarioa: Sare sozialek eta komunikazio digitalak egun daukien garrantzia bermatzeko, marketing digitalean eta sare sozialen kudeaketan prestakuntza edukitzea eta baita ere komunikazio instituzionalean prestakuntza berezia edukitzea beharrezkoa izango da, formakuntzaren titulu edo egiaztagirien bidez egiaztatuko dena.

d) Zerbitzu zehatz hau garatzeko, enpresak daukazan baliabide materialen eta pertsonalen deskribapena egin beharko dau esleipenerako proposatutakoak kontratua esleitu orduko.

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E30002A0E600X4G3A8J7I6O0

Sinadurea eta datea

MIREN KARMELE MUÑOA ARRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA TEKNIKARÍA - 08/08/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/08/2019 12:28:54

EXPEDIENTE :: 2019KON_IRE_0016

Datea: 19/07/2019

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Bermeon, 2019ko .....

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E30002A0E600X4G3A8J7I6O0

Sinadurea eta datea

MIREN KARMELE MUÑOA ARRIGAIN(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARITZA TEKNIKARÍA - 08/08/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/08/2019 12:28:54

EXPEDIENTE :: 2019KON_IRE_0016

Datea: 19/07/2019

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia